

2018 bukaera iritsi da eta trantsizio urte bat izan dela esan dezakegu, zertara goazen ez dakigun arren. Datorrenak, [Black Mirror Bandersnatch](#) Netflixeko seriearen kapitulu interaktiboaren antza handia izan dezake. Etorkizuna aukeratu dezakegu, etorkizuna sortu egiten baita, baina ematen zaizkigun aukerak ez dirudite oso positiboak; aukera onak egiten asmatu beharko dugu, etorkizun gabeko begizta batean ez murgiltzeko.

Ikus-entzunezkoekin hasi garela, narrazio berritzaileak esperimentatzeko gero eta aukera gehiago ditugu Datu kazetaritzak, bisualizazioari lotuta, [emaitza ederrak sor ditzake](#) adibidez. Gero eta hibridazio gehiago dago komunikazio moten artean, [ez irrati eta ez telebista diren produktuak](#) edota [transmedia izatera igarotzen ari diren hedabideak](#). Harpidetzan oinarritutako ereduak ere zabaltzen ari dira, [podcast plataformak](#) edota [hedabide berezituak](#) adibide bezala. [Liburuari ere iritsi zaio, izen hori merezi badu, mutatzeko garaia](#), baina ez espero genuen eran.

Online espazio «publikoak», [pribatuki gestionatu eta ustiatuak izatea gero eta zalantza gehiago](#) sortzen ditu. Hala ere, [espektatiba handiekin sortu genituen makina sozial hauek, guk sortu genituen, beraz oraindik ere alda ditzakegu](#) eta hori ere ulertzea garrantzitsua da.

Algoritmoen jendartean, sortuko dituen aukeren eta arriskuen artean, [lanaren gainean duen eraginean enfasi asko jarri dugu](#). Hala ere, [lana eta bizitza, erdigunean jartzerik ere bada eta horretara bideratu beharko genituzke berrikuntza horiek guztiak](#). Bestela, orain arte zentroa izan den [soldatapeko lanak ere ez dio eutsiko, jendarte kohesiorako tresna bezala](#).

Aplikazio eta algoritmoetan oinarritutako zenbait enpresen aurrean, [sabotajeak](#) eta [lapurretak](#) ere ikusiko ditugu, bereziki denbora batean ahalik eta eskubide gehien alboratzen dituen estrategia martxan jarri, hasierako errentagarritasuna hortik lortu eta, gero legea egokitzen denean, ospa egitea erabakitzen duten [Enpresapp](#) horien aurka.

Kontziente izan behar dugu [Europak zuen pisu espezifikoa ere asko jaitsi dela](#). Orain dela 100 urte, populazioaren %25a zen europarra; orain aldiz %12 inguru eta oso denbora gutxian %9 izan daiteke. Europa gauzak mugitzen ari dira eta [ez dakigu nola bukatu duen ere](#). Txinak bitartean, bere proiektu geopolitikoa hedatzeko prestatzen ari da, [bere historia eta eragina zabaltzeko plan handiekin](#).

[Datorrena](#), gure esku ez dagoela sinistea erraza den garaiotan, posible dela adierazteko beharra dugu. [Oteizak, hilerri bati, ikuspuntu herritarra eta bizitzaz betekoa irudikatzea lortu bazuen](#), gure jendarteak bere etorkizuna desiragarriak asmatu beharko ditu eta horretarako [herrigintzarako etorkizuneko tresna berriak](#) lantzea.

**Iturri originala:** <http://www.azkuefundazioarenegunkaria.eus/teknologien-faroa-9/>